

Carlos Calleja Elcorok bere tesia irakurri du

2013/07/12

Uztailaren 11an, goizeko 09:30etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Carlos Calleja Elcoro Doktoregaiak bere doktoretesia aurkeztu zuen Pedro Biteri eta Arana Egoitzeko Aula Magnan. Tesiaren izenburua Control directo de máquinas de imanes permanentes para aplicaciones de tracción ferroviaria eta tesi zuzendariak: Javier Poza eta Amaia Lopez de Heredia. Gainera CUM LAUDE gai kalifikazioa lortu zuen. Honetaz gain, Europako Doktore aipamena jaso zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Seddik Bacha (Joseph Fourier University - Grenoble) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Gaizka Almandoz Larralde (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Fernando Briz del Blanco (Universidad de OVIEDO) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Txomin Nieva Fatela (CAF POWER & AUTOMATION) Dk. Jn.
- Idazkaria: Gaizka Ugalde Rosillo (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi honek, trenbide sektoreko industria-enpresek beren produktu komertzialetan erabiltzen dituzten PMSM motorrak hobeto kontrolatzeko helburuarekin, honakoa ikertu eta aztertu du: momentu eragilean (DSC) oinarritutako kontrol sendo eta eraginkorraren inplementazioa, aplikazioari dagozkion baldintzak betetzen dituen.



Carlos Calleja Elcororen tesia